


www.noaia.com

# Noaia !!



San Esteban egunean  
hasiko dira Urdaigako festak

Zubieta,  
jaietan blai





**PSU**  
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

# Karobi

nekazalturismoa

Ondo pasa  
jaietan!



Petritza bidea, ZUBIETA

- Logelak bainugelarekin



943 360 635 / 605 704 813



# ILLUNBE-GOIKOA

NEKAZALTURISMOA

**Logelak**  
**komuna eta TBrekin**  
**Sukaldea**  
**Jangela**



[www.nekatur.net](http://www.nekatur.net)

666 884 901 [anaginaga@hotmail.com](mailto:anaginaga@hotmail.com) USURBIL



Albistea iruditan !!

## Atallun dago orain Alkartasuna Kooperatiba

**D**antzarien agur, hamaiketako das-tagarri eta herri kirol ikuskizunarekin inauguratu zuten uztailaren 16an Alkartasuna Kooperatibaren egoitza berria. Kokagune berria baitu, asteburuan ekitaldi ofiziala ospatu arren, ekainaren 21az geroztik. Atallu industrialdean, 26. zenbakian kokatua dago. Egoitza berriko ataria aukeratu zuten antolatzaileek hain zuzen, aipatu irekiera saioa burutzeko. Goizean zehar, aizkolarien lehia burutu zen lehenik. Xabier Dorronsoro eta Aitor Urteaga nagusitu ziren, Esnal aita-seeekin izandako lagun arteko neurketan. Giza proba ere burutu zen. Eta noski, jan edanik ez zen falta izan. Txekor errea, txorizo egosia, sagardoa, ardoa, muztioa... Primerako goiz pasa izan zen Alkartasunako egoitza parean.



HERRI KIROLAK EGIN ZIREN INAUGURAZIO EKITALDIAN.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltea	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldgia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

**Noaua!**

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jenduarreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitate@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





ARITZ GORRITI

## Uda, norbere eskura

O hiko edo ezohiko, ez dakit nik, baina udazken giro honetan, euri zaparrada betea kanpoan eta opor aurreko azken orduetan, ordenagailu aurrean nagoela irakurtzen ari naiz, beste hainbat zonalderen artean, inguru hau ere uholde arrisku handiko gunea omen dela. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta URA agentziak esana da hori. Gipuzkoako kostaldeko zazpi udalerri ur artean galtzeko arriskua omen dago, itsas maila dezente hazten bada. Ibaiek eragindako uholdeak ere aipatzen dituzte, bere ondorio kaltegarriak alegia. Usurbil ere arrisku guneen artean sailkatzen dute. Nobedaderik ez alde batetik, lehen ere zoritxarrez hala-koak gertatu izan dira eta.

Baina era berean, halako albisteez zer eragiten ote dute? Alarma, beldurra, edo ezer gutxi... Bakoitza nahi duen moduan eta lekuan kokatu dadila, halako albistee-kin ahal bada salbu noski. Uholdeak, sarraskiak, triskantzak, ezusteko gertakariak... Arriskuez hitz egiten dugunean, probabilitatez ari gara, gerta daitekeenaz, noiz, non edo nola jakin gabe. Ez dago gure esku, ezin dugu kontrolpean izan. Eta horrek agian, txikiago egiten gaitu, ahulago, ezjakinago. Beldurra eragiteraino, uzkurtzeraino. Baina pentsatzen jarrita, zer da beldurra, tabua agian?

Hitz egiten al dugu geure beldurrez, itxuraz garrantzirik ez duten baina goizago edo beranduago bizitzan zehar ageri eta blokeatzen gaituzten horietaz? Edo agian ez gara beldurtu inoiz, ez gara inoiz kakatiak izan. Edo beldurtzen ez digute irakatsi, edo ez dugu jakin beldurtzen, beldurrak ezagutzen, adierazten, beldurrak onartzen. Agian ez dagoelako ondo ikusia, ez da itxurosoa halakorik aurrekoarekin partekatzea. Edo bai. Mundu mailan, beldurra propaganda politikorako sarri ibili da, eta horren izenean astakeria ugari egin izan da.

Luzerako jo dezake honek eta ni banoa oporretara. Egin dezagun proba uda honetan. Desio moduan, eraman ditzagun gure beldurrak, haserreak, urteko nekeak, ezinegonak poteatzera, festetara, hondartzara, mendira, leku eder hau edo beste hura ezagutzera. Geure lagun izan daitezela uda honetan! Abesti ezagunak dioen moduan, konturatzerako "Negua joan da ta"... Han edo hemen, hala bada beldurtu lasai iraganaz, bizi dugun uneaz, geroaz, garenaz, izan nahi dugunaz, ez dakigunaz, egitera ausartzen ez garen horretaz... Baina horrek ez dezala mugatu uda hau ondo bizi eta ondo pasatzea, azkenean, gainerako guztia bezala, norberak duen horrekin egiten duena norbere esku baitago!

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika!

## Erraustegirako gaueko lanak, geldirik

Usurbilgo Udalak egindako eskaerari kasu eginez, joan den uztailearen 7an Donostiako Udalak erretiratu egin dio Construcciones Moyua enpresari Zubietako obretan gauez lan egiteko baimena. Baimen hori hauteskundeen aurreko Donostiako korporazioak eman zuen, enpresak eskatuta, nahiz eta erraustegia eraikitze eta erabiltzeko ezinbestekoa den Ingurumeneko Baimena Bateratuak espresuki hori debekatu. Gaueko zarategatik hainbat usurbildarren kexak jasota, Usurbilgo udala harremanetan jarri zen Donostiako udalarekin arazoa konpontzeko, Donostiako udal-eko lurretan egiten ari baitira obra horiek.

Usurbilgo Udala gobernatzen duen taldeak bere kezka azaltzen du gertaera honen inguruan, oso larria baita agerian gelditu dena: erraustegia bultzatu duten enpresek, erakundeek, eta talde politikoek ez dituzte betetzen ezta beraiek

ezarritako osasuna bermatzeko kontrolak ere, eta, beraz, kontrol horiek burokrazia eta propaganda hutsala besterik ez direla. Hori da ondorioa ondoko hauek aztertuta:

1. Erraustegia eraikitze eta ustiatzeko lanetan herriaren osasuna babesteko baldintzak Ingurumeneko Baimen Integratua izeneko agiriak ezartzen ditu. Baimen hori PSE-EEk zuzendutako Eusko Jaurlaritzak eman zuen 2010ean, eta berari dagokio baldintza horiek betetzen direla kontrolatzea. Eusko Jaurlaritzak ez du egin kontrol hori.

2. Baimen hori jaso zuen enpresa publikoak (Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU) baldintza horiek ezagutzen ditu, eta berari ere dagokio horren zaintza. Ez du zaintzarik egin. Sozietate publiko hau PNVren kontrolpean egon da bere sorreratik.

3. Erraustegia eraikitze obren-lehia-

keta irabazi zuen enpresa-taldeak ere baldintza horiek ezagutzen ditu, ezinbestekoa baitzen baldintza horiek errespetatzen dituen proiektua aurkeztea. Hala ere, baldintza horiek urratzen dituen eskaera egin zion Donostiako Udalarri.

4. PSE-EEk gobernatutako Donostiako Udalak ere baldintza horiek ezagutzen zituen, eta, hala ere, gauez lan egiteko baimena eman zuen.

Hondakinen erraustegia osasunerako kaltegarria dela behin eta berriro salatu dute sendagileek. Honen aurrean, erraustegitaren sustatzaileak herria lasaitzen saiatu dira hainbat ustezko kontrolak ezarritz. Gertaerek, ordea, kontrol horiek hutsalak direla adierazten digute, eta, beste behin, Gipuzkoan hondakinen kudeaketarako erraustekarik gabeko beste irtenbide bat abiatu behar dugula adierazten digute.

**Pepe Rivadeneyra, udal zinegotzia**

# Beti arte

## Hunkigarria, Joxe Antonio Altunari eskaini zitzaion omenaldia

**J**oxe Antonio Altunari omenaldi sentitua eskaini zioten pasa den igandean. 16 urtez Usurbilgo alkate izan zena martxoaren 7an zendu zen. Omenaldia Sutegin hasi zen. Txiki geratu zen kultur aretoa eta jende asko sartu ezinik izan zen. Argazki zein bideo irudiz osaturiko proiektzio bat eskaini zuten bertan. Sutegikoa amaitu zenean, albokaren doinuari jarraituz frontoirako bidea egin zuten. Joxe Antonio Altunaren irudi batek edertu zuen frontoian ipini zuten oholza.

Usurbilgo Ezker Abertzaleak antolatu zuen omenaldian, partehartze handia izan zuten Joxe Antonio Altunaren lagunminek. Bertso eta dantza saio bidez agurtu zuten Joxe Antonio. JoxAnton Artze olerkariak ere hartu zuen parte, poemak errezitatuz.

Ikusleen artean Ezker Abertzaleko hainbat kide zeuden, tartean, Rufi Etxeberria, Ino Galparsoro eta Xabier Zubizarreta. Hauekin batera, Mertxe



BERE LAGUNMINAK, IKURRIÑAREN DANTZAN PARTEHARTZEN.

Aizpurua egungo alkatea eta Xabier Mikel Errekondo, azken lau urteotan alkate izan dena.

Errekondok berak hartu zuen hitza eta Altunaren ibilbidea goraiatu zuen: "Ezin hobeto ordezkatu duk Usurbil, bai Gipuzkoan bai Euskal Herrian". Une gogorak pasa behar izan zituela, "zauriak jasandakoa haiz, baita sakonak ere, baina harro erama-

teko moduko orbainak guztiak. Herriak bazekik".

Herria egiteko modu eredarria izan zuela aitortu zuen Xabier Mikel Errekondok eta horregatik "Usurbilek eta usurbildarrok hamarkadatan jasoko diagu hire emana".

Une hunkigarri asko izan ziren eta ekitaldian zehar Joxe Antonioren etxekoei oroigarri bat eman zieten.



## URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

## Festen usainean



**H**erriko festak pasa dira eta gure auzokoak ere gainean ditugu, a ze poza! Programak ikusteko aukera izango duzuen arren, laburpen txiki bat egiteko aprobeixatuko dut tarte hau! Festak abuztuaren 3an, asteazkenean, hasiko dira: San Esteban Egunez.

Goizeko txupinazoaren ondoren, meza, dantzariak, zahagi banaketa,... izango ditugu. Ondoren, jubilatuen bazkaria eta arratsalde helduen arteko jokoak. Hirugiharra dastatu ondoren, erromeri giroan dantza egiteko aukera izango dugu.

Abuztuaren 4an, osteguna, Oilasko Biltzaileen Eguna izango da. Etxerik etxe, baserriz baseri ibili ondoren bazkari eder batekin gozatzeko aukera izango dugu Aialde-Berri sagardotegian. Gauean kontzertuak izango dira Akerra gaztetxean.

Abuztuaren 5ean, gauean plazan izango dugu kontzertua eta ondoren berbena.

Abuztuaren 6an, larunbata Haurren Eguna izango da. Goizez jokoak eta arratsaldean mus txapelketa eta antzer-



kia. Gauean herri afaria eta ondoren bertsolariak izango ditugu; Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Julio Soto. Gaua borobiltzeko, berbena.

Abuztuaren 7an, igandean, meza ondoren hamaiketako izango da eta toka txapelketarekin emango diegu amaiera festei.

Denok gonbidaturik zaudete bertaratzera! Eta lanerako gogoarekin dagoenarentzat ere, izango da zeregina abuztuko lehen egunetan ere! Beraz, badakizue, azaldu!!!

## AGINAGA

M<sup>a</sup> ANGELES ARRUTI

## Lambreta, bueltan



**A**uzotar Juanjo duzue argazkian, bere “harribitxi” Lambretarekin. Orain berrogeita hamar urte bere aita zena Juan Josek erositakoa dena garbitu, konpondu eta bere kolore originalaz margotuta, hor dabil errepidean harro-harro bere Lambretarekin. Bere gurasoak hainbeste joan etorri egindakoa eta bere ama Rufina ere oso pozik dago, ez da gutxiago beraren-tzat. Zenbat oroitzapen datozen burura, ez baitzen gaurko bizimodua.

Udako oporraldi aurreko azken kronika honetan, ez nuke beste kontu bat aipatu gabe utzi nahi. Azken aldi honetan egin dituzten hobekuntza lan batzuen berri eman gabe hain zuzen.

Egokiak, datozen opor garai hauetarako, eta Usurbil zein Orio aldera autoz ibili beharra dugunontzat ere. Galipota ere etorri da eta azkenean, gure herrira, ondoko errepidera.

Bazen garaia. Ez pentsa, giro zela “batxeak” ez zapaltzeko, kostako N-634 errepideko errebuelletan. Baina zer gara gehiago eginez, askotan ibiltzen garenok badakigu zer den hori.

Lehenengo esaera erdaldun batek esaten du, “Las cosas de Palacio van despacio”. Itxaronaldia, guri oso luze egin zaigu



baina beste esaera batek dioena gogora ekarriz, “más vale tarde que nunca”.

Inoiz baino, hobe dela berandu izan arren, egin beharrekoea egitea; kasu honetan, hobekuntzak egin dira eta horixe da garrantzitsua. Guztiok eskertuko dugu aurrerantzean.

Kronika hau ez nuke amaitu nahi agurtu gabe. Irakurleoi eta NOAUA!ko langileei oporrak ondo pasa eta irailera arte.



## ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

## Gezurra badirudi ere...



**B**ost urte igaro dira berriz ere bizirik sentitu nintzela. Bost urte nire al-tzoko jai giroa bertaratu zinetela. Urte asko pasa eta gero jai giroan, isilune garai hotz bat heldu zen.

Zorionez garaiak aldatzen doaz, eta festara-ko gogoek lan ezari ordagoa bota, eta hortxe irabazi genuen txapela.

Aurten ere hemen izango dira abuztuko azken asteburuan, hilaren 26tik 28ra festak hasteko luntxa eta abesti berriaren estreinaldia, bai umeen jolas, mus, patata tortilla eta toka txapelketak, auzo bazkari zein afariak (adi alde aurretik salgai jarriko diren sarrerei), goizaldera arte parranda giroa ziurtatuko duten kontzertu, eguerdiko hamaiketako, euskal kirol eta nola ez, azken eguneko traka!

Barrenak ere dantzan jarri eta begiak umeltzen dizkidaten burruna hots eta koloretsu horiek.

Ezin ahaztu aje edota alde aurretik egin beharreko lan, prestaketa, bilera, txosnetako txanda eta bronka txikiak... Auzotarren arteko elkarlana hain zuzen, ikusten ez diren lan neketsuak. Aurten ere kantu berri batekin alaituko dutelako-



an nago, (bazen garaia!), aurrekoak bereak eman zituen eta. Irrikatan nago nire hezur zahar hauek mugitzen hasteko.

Ez nuke agurtu nahi bai batzordeko taldean lanean ibili diren gazteei, laguntzen ibiliko diren auzokideei, eta baita protagonista nagusiei ere: bertan gozatuko duen orori.

Ea nire festa, zuen festa bilakatzen den aurten ere. Nire eskerrik beroenak, eta jarrai ezazue horrela! A-26an nirean ikusiko gara!

## KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Gu ere oporretara!!!



**S**an Juan gaueko su garren txinparta hotsak amaitzearekin batera, eta behin udako solstizioa bizitu ostean, uda usainak, opor usainak eta arropa kendu nahiak denek bat egiten dute.

Udak berekin daramatza deskantsua eta nekea, aisia eta lana. Inondik inola ere denak opor garaia zain, batzuk oporretara joateko eta beste hainbeste aurrekoek utzitako lekua betetzeko. Edo ikasketak amaitu eta ikasketekin jarraitzeko edo lana egiteko. Edo urtebetez ikusi gabeko lagun edo senitarakoak ikusteko. Edo goizetako txirrina hotsa entzuteari uzteko. Arrazoiak arrazoi, modu batera edo bestera, denok ateratzen diogu etekinen bat udari.

Eta gu ere horretan gaude. Iritsi da garaia hitz makal hauek idazteari utzi eta udak eskaintzen dituen egunetaz gozatzeko. Itzali ditzagun ordenagailuak, itzali telefonoak eta lotura guztiak eta egin dezagun etena.

Txikienok, ez utzi jolas egiteari, jolastu aspertu arte, baina ez inoiz aspertu. Gazteok, ez utzi festa egiteari, eta festa bizi-tzeari. Helduok, ez utzi deskantsu momentuak hartzeari eta gainontzekoei ere, ez utzi udaz gozatzeari. Ondo pasa eta bueltararte!

## ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Gure txikitasuna

**Z**uen aurrean idazten dugunok oso mugatua dugu Zubietan gertatzen diren berrien ezagutza. Nik justu-justu nire adinekoen kontu batzuk: seme-alabak, baratzak, errauskailuaren azken zurrumurruak eta ezer gutxi gehiago. Eta bazterrotan gertatzen direnak badira hori baino gehiago. Konta nezake inguru hauetan Axelko dabilela, gurean dozena bat oilo eraman dituela eta aldamenekoren batean antzarakume bat edo beste. Aipa nezake denok ikusten eta sufritzen ditugun obrak estolderia berria jartzeko Etxeberritik Plazaraino. Ona izango da bukatzen dutenean, bitartean... Gainera nezake krisialdiak jo dituela festetako kontuak. Horretan ere larre motzean ohitu beharko dugu. Baina beste kontu batzuetarako ez dugu hitzik, ez dugu ezagutzarik, ez eta jakituririk. Ez dakigu nola aipatu bizilagun baten heriotza. Ez genuen ezagutzen. Ez dakigu nola adierazi gure animo hitzak bere familiakoei. Ezagutzen ditugu gurasoak eta anai-arreba batzuk, baina hi-tzak falta zaizkigu. Ez dakigu esplikatzen hutsune horrek txikiagotu egiten gaituela. Bizitzaren gorabeheren aurrean txikiak garela. Askotan beste alde batera begiratzearekin ohituta, ez dakigu hizpidera ekartzen horren esanahia.



## Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertu bat Salvatore parrokian izango da

**A**buztuaren 7an hasiko da Donostiako Musika Hamabostaldia. 77 kontzertu eta 42 kokaleku izango ditu aurtengo edizioak. Hamabostaldi honen baitan, organo kontzertua izango da Usurbilgo Salvatore parrokian. Alessandro Bianchi musikariak organo kontzertua eskainiko du, Musika Hamabostaldia hasiko den lehen egunean gainera.

Organista ezaguna ei da Alessandro Bianchi italiarra. Garai erromantikoari lotutako hainbat doinu eskainiko ditu abuztuaren 7an, Salvatore parrokian. Usurbilgo Mutin/Cavaillé-Coll organoaren soinu-aukera oparoaz gozatzeko aukera ederra izango da.

1.600 kontzertu eskaini ditu Alessandro Bianchi Comon jaio zen (Italia) eta organoko zein organo konposizioko diploma lortu zuen Piacenzako kontserbatorioan.

“Amicci dell’organo di Cantù” elkartearen sortzaile eta zuzendari artistikoa da eta organista moduan ari da Cantùko San Paolo basilikan.

1.600 kontzertutik gora eskaini ditu bakarleri gisa, eta munduko jaialdi garrantzitsuenetan hartu du parte.

Organorako hainbat lan eman ditu ezagutzera, italiar musikagileek zein atzerritarrek idatziak, eta hainbat artikulua idatzi ditu organoaren munduari buruz.

Horrez gainera, hainbat grabazio egin ditu irratirako, telebistarako eta diskoe-txetarako eta gaur egun Luganoko anglikar elizako organista da.

**Abuztuaren 7an igandea**  
Alessandro Bianchi organojolea.  
20:00etan Salvatore elizan. Doan.



UZTAILAREN 1 SEAN, GIPUZKOAKO DANTZA TALDEETAKO HAINBAT ORDEZKARI IZAN ZIREN ORGANO ERABERRITUA BISITATZEN.



UZTAILAREN 1 SEAN ERE, AMERIKAKO ESTATU BATUETAKO 16 LAGUN HURBILDU ZIREN USURBILGO ORGANOEA EZAGUTZERA.

### Organo eskola Salvatoreren

Abuztuaren 10ean asteazkena, bestetik, organo eskola bat emango da Usurbilen. Aurten, Japon, AEB, Brasil, Frantzia, Alemania, Belgika eta

Espainiako hainbat organojole arituko dira eskolak ematen eta, besteak beste, Usurbilgo Salvatore parrokia izango da eskolak emateko baliatuko den tokietako bat.

**TAXI 24h**  
Jose Etxabe USURBIL  
677 37 34 66  
943 36 21 78

**izagirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirreletrizitate@botmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**ALIPROX**  
Kale Nagusia 10  
943 361 182  
USURBIL

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65



!!!

gehigarri berezia  
**Santio jaiak**

uztailak 23







**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

☎ **943 36 46 00**

**www.lhusurbil.com**

**Jai zoriontsuak opa dizkizue!!!**

**Heziketa zikloetarako sarbide frogarako ikastaroak**



**36 urte  
Pertsonak hezitzen**

**Erdi eta goi mailako  
zikloak A eta D Ereduak**

- Administratiboa
- Elektrizitate-elektronika
- Fabrikazio mekanikoa
- Ura eta energia
- Produkzio zerbitzu eta manten.

**Etarte bidea 9, Zubieta**

**eskola@ihusurbil.com**




**BARAZAR**  
**OSTATU-JATETXEA**

*Logelak bare komunekin  
Afarriak egunero  
Bazkanak igande eta jaingunetan*

*Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

**943 36 33 58 ARBITZA BIDEA - ZUBIETA**

taberna-jatetxea  
**ALAMANDEGI**

*Santio jai  
zoriontsuak  
opa dizkizuegu*


☎ **943 36 28 49**  
**ZUBIETA**





### Jan-edana ziurtatua dago Zubietan

Santioetan, sabela pozteko zenbait hitzordu interesgarri sdeitu dituzte. Jaiak hasi eta ordu gutxira, larunbat honetan, herri afaria ospatuko da gaueko 21:00etatik aurrera. Jubilatua ere bazkaritarako bilduko dira igandean, uztailaren 24an. Etxetik eramandako otorduarekin hurrek ere, elkarrekin bazkaltzeko aukera izango dute astebete barru. Santioak borobiltzeko, zikiro jana ospatuko da San Inazio egunean. Otorduotarako txartelak alde aurretik eskuratu behar dira, egunotan Alamandegia jatetxean salgai jartzeak ziren. Jatekoaren lagungarri, Santioetan edatekoa ere zerbitzatuko dute txosnetan. Bertan, antolatzaileen esanetan ez da girorik faltako Santioak amaitu artean, “musika egunero egongo da txosnetan, gau eta egun”.



### Astelehenik ez, Santio Eguneko hitzorduekin

Asteburuko lehen jai egunen osteko ajearekin, astelehen goizean goizetik izango da zer ospatua Zubietan. Donostiako txistulari bandak esnatuko du Santio eguna. Meza nagusia eta hamaiketako ederra dasatzeko hitzorduak deituak daude gero. Tradizioari hutsik egin gabe, soka-dantza ospatuko da bazkalaurretik. Arratsalde eta gau partean, trikitixa doinuek eta bertsoek bereganatuko dute Santioetako arreta osoa. XIV. Trikitixa Txapelketa ospatuko da lehenbizi, Nekane eta Oihana trikitilarien saioaz gozatzeko parada izango da ondoren, eta gaueko 22:30etatik aurrera, bertso saioa, Beñat Gaztelumendi, Jokin Labayen, Arkaitz Oiartzabal “Xamoa” eta Inigo Manzisidor “Mantxi” partaide dituela.



### Txikienek primeran pasatzeko egun oso bat izango dute

Gurasoekin edo gabe, jaietako protagonista nagusietakoak haurrak dira. Santioak ez dira salbuespen zentzu horretan. Uztailaren 29an etxeko txikienek egun oso bat dute primeran pasatzeko. Goizeko 10:00etan hasita, arratsaldean ere jarraipena izango duten hainbat jokoetan parte hartu ahal izango dute. Tartean, atsedena hartuz noski, elkarrekin bazkaltzea proposatzen diete eta Jai Batzordetik. Norberak etxetik otordua eramanez, postrea antolatzaileek jarriko dute. Arratsaldea jolastuz, eta txokolate ederra dastatuz amaituko dute guztiek.



### Aurten gau pasa Mendeku Itxua, Gozategi eta Trikihots taldeekin

Jai Batzordeko kideek egoki izendatu duten moduan, Gau Pasa Egunean bihurtu da uztailaren 30a. Aurtengoan, arratsalde parterako mus txapelketa programatu dute, baita bikotekako III. Bizikleta Txapelketa eta hurrei zuzenduriko antzerkia. Gauerdetik aurrera ospatuko da hitzordu nagusia; triki-rock jaialdia, aurtengoan, Mendeku Itxua, Gozategi eta Trikihots taldeekin. Kontzertu osterako antolatzaileek zerbait iragarria badute egitarauan. Zer egongo den jakiteko ordea, goizaldera arte itxaron beharko da. San Inazio eguna hasi arte.

# Egitaraua, Santio jaiak 2011



## Uztailak 23, larunbata

19:00 Jaien hasiera (buruhandi, kantu-jira, txosnen irekiera etab...)  
21:00 Herri afaria.  
00:00 Egan taldearekin erromeria.  
Ondoren, Itzartu taldearekin jaiarekin jarraitzeko aukera.

## Uztailak 24, igandea Jubilatuen Eguna

10:30 Meza.  
12:00 Herri-Kirolak (Korrika, Txingak, Lokotxak, Trontza, Sagar-biltzea eta Arto aletzea).  
14:00 Jubilatuen bazkaria.  
18:00 Dantzaldi musikala.  
Ondoren, Uxue eta Lierni trikitilariak, Sardina jana, Piperrak eta Sagardoa dastatzeko aukera.  
23:00 Kontzertua: Blaka.  
Ondoren, Laiotz taldearekin erromeria.



## Uztailak 25, astelehena Santio Eguna

09:00 Esnadeia (Donostiako txistulari bandaren eskutik).  
10:30 Meza nagusia.  
11:30 Hamaiketako.  
Ondoren, Soka-dantza.  
18:00 XIV. Trikitixa txapelketa.  
Ondoren, Nekane eta Oihana trikitilariak eta buruhandiak.  
22:30 Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Jokin Labayen, Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" eta Inigo Manzisidor "Mantxi".  
Gai-jartzailea: Iker Iriarte.  
Ondoren, Nekane eta Oihana trikitilariak.

## Uztailak 26, asteartea Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera.  
14:00 Oilasko biltzaileen itzulera eta azken dantza.

## Uztailak 29, ostirala Umeen Eguna

10:00 Jolasen hasiera.  
14:00 Bazkaria (Bakoitzak bere bazkaria ekar dezala, eta gure kontu postrea).  
16:00 Jolasen jarraipena.  
19.30 Txokolatada.  
22:30 Herri antzerkia.

## Uztailak 30, larunbata Gau Pasa Eguna

16:00 Mus txapelketa.  
17:30 Zubietako bikotekako III. Bizikleta lasterketa.  
18:30 Umeen antzerkia.  
00:00 Triki-rock jaiak:  
Mendeku Itxua, Gozategi  
Ondoren, Trikihots taldearen erromeri bikaina.

## Uztailak 31, igandea San Inazio Eguna

06:00 eta gero...  
09:00 Zikiro prestaketaren hasiera.  
10:30 Meza.  
11:00 Errebote partidua.  
14:00 Zikiro jana.  
18:30 Gorritiren Showa.  
Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak eta buruhandiak.  
22:30 Ansorregi eta Larrañaga trikitilarien jarraipena.  
00:00 Jaien amaiera (Suziri, suzko-zezen...)  
Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariarekin jaien amaiera.

*Oharrak:*

- *Jaietan gerta litezkeen ezbeharretan, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzukizunik.*  
- *Musika egunero egongo da txosnetan, gau eta egun.*





**N!!!**

*gehigarrri berezia*  
**Sanestebanak**  
*abuztuak 3*








### Erromeri giroa, jan-edana eta jokoak, San Esteban egunetik hasita

Iaz bezala, aurten ere, San Esteban egunez abiatuko dira Urdaiegako jaiak. Goizean goiz entzungo dira festetako lehen suziriak. Meza nagusia hamaiketan eta ondoren, hamaiketakoa eta dantzariak plazan. Urtero moduan, jubilatuek bazkaritarako bilduko dira Zumeta jatetxean eta arratsaldez, Urdaiegara igo eta animatzen direnak helduen arteko jokoetan parte hartuko dute, 17:30etan hasita. Eguna bapo amaitzeko hirugiharra das-tatu ahal izango da, Laja eta Landakandaren erromeriaz gozatzearekin batera.



### Udako biran, Mendeku Itxuak geldialdia egingo du Urdaiegan

Lehenbizi Zubietako Santio jaietan ikusiko ditugu, Ubaita abuztu amaieran Atxegaldeko festetan ere. Eta tartean, San Estebanetan. Abuztuaren 5ean, ostiralarekin kontzertua eskainiko dute ermita aurreko plazan, gaueko 23:00etan hasita. Ondoren, Trikilhots taldearen txanda izango da. Erromeri eta parranda giroa ziurtatua egongo dira, goizaldera arte. Musika gosea duenak Akerra Gaztetxean kontzertuak izango ditu abuztuaren 4an. San Estebanetako musika eskaintza, Jalisko Band taldeak hilaren 6an eskainiko duen emanaldiak osatuko du.



### Egaña, Lujanbio eta Soto, aurtengo bertso saioko gonbidatuak

San Estebanetako ekitaldirik jendetsuenetako bat jaien sbaitan ospatzen den herri-afaria izan ohi da. Karpa azpian, normalean eguraldi ona dela, herritar ugari biltzen da etxetik eramandako otordua lagun edo senide artean das-tatu eta tarte atsegin bat igarotzera. Herri-afariak ordea, badu bigarren osagai erakargarri bat ere; herritarren artean, afalostean ospatu ohi den bertso saioko partaideak egon ohi dira eta. Aurtengoan, punta-puntako hiru bertsolari gonbi-datu ditu Jai Batzordeak Urdaiegara; Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Julio Soto. Gai jartzaile lanetan, Bota Punttuba Bertso Eskolako ordezkari-tza arituko da. Hitzordua, abuztuaren 6an, iluntzeko 21:00etan hasita.



### Haurren Egunean, "Hiru, bi zast... egizu jolas!" antzezlan

Oilasko biltzera irteteko asmotan direnek, abuztuaren 4an dute hitzordua. Eguerdik partera arte, etxetik ibili ostean, bazkaritarako bilduko dira Santueneko Aialde-Berri sagardotegian. Indarririk gelditzen zaionari, eguna Txokoaldeko Akerra Gaztetxean borobildu dezake, bertan antolatu diren kontzertuekin.

Haurren Eguna, abuztuaren 6an, larunbarekin ospatuko da. Goizean, jolasak, buruhandiak... Arratsaldez, "Hiru, bi zast... egizu jolas!" antzezlanaz gozatu ahal izango dute. Bertsoak, koplak, txotxongiloak eta antzerkia uzartuko ditu emanaldiak. Besteren artean, Alex Tello herritarrak parte hartzen du bertan.



# Egitaraua, San Esteban jaiak 2011

## Abuztuak 3, asteazkena

### San Esteban Eguna

09:00 Txupinazoa!!

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, Zahagi Banaketa (Espumosos Txapeldunen eskutik) eta Usurbilgo Dantza Taldearen emanaldia.

14:00 Jubilatuen bazkaria Zumeta jatetxean (Berriola Fagor eta Ingemarren eskutik).

17:30 Helduen arteko jokoak! Eta ondoren hirugihar banaketa Laja eta Landakanda trikitalarien laguntzaz.

## Abuztuak 4, osteguna

### Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria

Aialde-Berri sagardotegian. Gauean, Akerra gaztetxean kontzertuak.

## Abuztuak 5, ostirala

19:00 Buruhandiak

23:00 Mendeku Itxuaren kontzertua, ondoren erromeria Trikihots taldearekin.

## Abuztuak 6, larunbata

### Umeen Eguna

Egun osoan zehar, plater tiraketa.

11:00 Marrazki lehiaketa.

Ondoren, haurren jolasak eta buruhandiak.

16:00 Mus txapelketa.

18:00 Umeentzat antzerkia: *Hiru, bi zast... egizu jolas!*

Ondoren, txokolatada, buruhandiak.

21:00 Herri afaria (norberak ekarria, kafea, postrea eta kopa jai batzordearen eskutik).

Ondoren, bertsolariak; Andoni Egaña, Julio Soto eta Maialen Lujanbio. Gai jartzailea; Bota Punttuba.

Gauean, Jalisko Band taldearekin erromeria.

## Abuztuak 7, igandea

10:30 Meza.

Ondoren, hamaiketako eta toka txapelketarekin festei amaiera emango diegu.

*Oharra: Jai batzordeak ez du jaiegun hauetan gerta daitezken kalteen erantzukizunik hartzen.*

Interneten ere aurkituko gaituzu NOAUJA! Usurbildarron zerbitzura

<http://twitter.com/noaua>

<http://www.facebook.com/noaua>

<http://www.youtube.com/noauatb>

<http://www.noaua.com>



www.saltxipi-usurbil.com

# SALTXIPI



## JATETXEA



BERTAKO HAZTEGIKO MARISKOAK.  
ESPEZIALITATEA: ZENTOLLO EGOSITA EDO LABEAN



**ONDO PASA SANE STEBANAKI**



**ESPEZIALITATEA PARRILAN:**  
·Haragia (idi txuletoa eta azpizuna)  
·Arraina (bisigua, erroboiloa, zapoa...)

**GARAICO JAKIAK:**  
txitxardinak, txipiroiak, hegaluzea,  
bakailo tortilla, onttoak...

**Txokoalde 23 · USURBIL · 943 361 127 · 943 371 094**



## Dirulaguntzak begirale zein zuzendari ikastaroak egiten dituztenentzat

**A**isialdiak gero eta garrantzi handiagoa du gure herrian. Udalekuak, ludotekak, Gabonetako parkea... hainbat eta hainbat jardura antolatzen da herrian haur eta gaztetxoek zuzenduta. Horrelakoetan formakuntza oso garrantzitsua da eta Udalak diruz lagunduko dio begirale nahiz zuzendari ikastarorik egiten duen herritarri. Hona hemen dirulaguntza hauen xehetasunak, Udal Euskara Zerbitzuak helarazi dizkigunak.

Orain arte bi urtean behin Usurbilgo Udalak begirale ikastaroa antolatu izan du Buruntzaldeko Udalekin elkarlanean.

Aurten, ordea, ikastaroa zuzenean Usurbilgo Udaletik antolatu beharrean, ikastaroak egiten dituzten gazteek diru-laguntzak emateko bidea hartu da, urtero urtero diru-laguntza deialdia eginez.

Modu honetara, Usurbilgo Udalak 2012an diru-laguntza lerro berria irekiko du Udalak, 2011/2012 ikasturtean bi ikasturte hauetakoren bat egiten duten gazteentzat: Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale ikastaroa edo Aisialdiko Zuzendari ikastaroa.

Deialdia artean argitaratu gabe baldin badago ere, ezaugarri hauek izatea aurreikusten da. Betebeharreko baldintzak, hauexek:

- Usurbilen erroldatua egotea.
- 18 urte baino gehiago izatea.
- Aisialdirako begirale ikastaroa edo Aisialdirako zuzendari ikastaroa egitea (teorikoa eta praktikoa).



2011/2012 IKASTURTEKO IKASTAROK LAGUNDUKO DIRA.

### Matrikularen %50a

Matrikula kostuaren %50eko diru-laguntza emango du udalak, muga hauekin:

- Aisialdiko begirale ikastaroan. Gehienez ere 250 euroko diru-laguntza jasoko da.

- Aisialdiko zuzendari ikastaroak, berriz, gehienez ere 150 euroko diru-laguntza jasoko da.

Udalak diru-laguntza 2012an egingo du, maiatza inguruan. Honenbestez, matrikula aurreratu egin behar da eta, gero, baldintzak betez gero, diru-laguntza bidez jaso.

Aukera paregabea da.

### Informazio gehiago, udaletxean

Ikastaro desberdinei buruzko informazioa edo diru-laguntza honi buruzko argibide gehiago Udal Euskara Zerbitzuan (943 371999).



### Ehunmilak Mendi

#### Lasterketan izan dira

**1** 68 kilometroko ibilbidea duen Ehunmilak Mendi Proban parte hartu dute bi herritarrek; Iñaki Bengoetxeak eta Moises Andresek. 48 ordu bete baino lehen amaitu behar zen Gipuzkoako mendi gailur gehienak zeharkatzen dituen proba, inguruotako gogorrena. Ohikoena, lasterketa erdi bidean uztea denean, bi usurbildar hauek helmugara ailegatu ziren. Bengoetxeak 42 orduren bueltan amaitu zuen proba, Andresek 47 ordu pasatxoan. Lagunek diotenez, kasta kontua izango da, biak lehengusuak baitira.

### Zuzendaritza talde berria osatu du eskubaloit taldeak

**E**skubaloit elkartek jada lanerako prest dagoen zuzendaritza talde berria osatu du. 2011-2012 ikasturteari begira, taldea laguntzeko gonbita luzatzen diete herritarrei.

### 2. nazional mailakoak, salbu

Datorren denboraldian, maila berean jokatu zuten edo ez zalantzan egon ostean, egoera argitu da jada; 2011-2012 denboraldian 2. nazional mailan jokatzeko jarraituko du aipatu kategorian aurten lehiatzen aritu den eskubaloitko taldeak.

**Javier Orbegozo**  
 ·ITURGINTZA  
 ·GASA ·BEROKUNTZA  
 659 602 789  
 Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL 943 37 29 37

**USURBIL AUTOAK**  
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

**SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala  
 Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

## Abesti berri eta guzti dator, Atxegaldeko festen bosgarren edizioa

**A**buztu bukaera, oporren amaiera, lanean edo ikasten hasteko garaia hurbiltzen... Uda giroan murgiltzeko festak baditugu herrian, baina baita egunerokotasunera samurrago heltzeko ere. Zubi lan hori egiten lagunduko diote bati baino gehiagori, abuztuaren 26tik 28ra ospatuko diren Atxegaldeko festek. Datozen jai hauetarako, eraserki lanak egingo dituen abesti berria prestatzen ari dira Jai Batzordekoak. Festetan estreinatuko dute.

48 ordu pasatxoaz jai giroz bustiko dituzte festek Atxegalde. Abuztuko azken asteburuan ospatuko diren arren, Jai Batzordeak prest du jada hilaren 26ko eguerdian hasi eta 28ko gauerdian partera arteko hitzordu zerrenda. Aurreko edizioetako egitarauari eutsi diote hein handi batean. Hala, ostiral arratsaldean hasiko dira jaiak txosnen irekiera eta luntx eder baten bueltan. Larunbatean egunez, haurrei zuzendutako ekitaldiak ospatuko dira, joko, txokolatada edo buruhandiekin.

Jaietako azken egunean, dantzarien emanaldiaz gozatu eta hamaiketako ederra dastatzearekin batera, lehia giroa nagusituko da; lehenbizi toka saioarekin, eta ondoren, patata tortilla onena egiteko saiakeran. Aurten gainera, txapelketen atalean, Jai Batzordekoek ekitaldi berri bat txertatu dute egitarauan; boleibol saioa.



ABUZTUAREN 26AN PIZTUKO DA ATXEGALDEKO JAIEN ITXAFERDA.

Hori bai, jokalaria bertakoak izango dira, auzokoak, eta lehia berriz, Atxegaldeko kale desberdinetako bizilagunen artekoa. Ikustekoa izango da.

### Herri-afari kantaria

Ilundu orduko, musika ekitaldiak nagusituko dira Atxegalden. Mendeku Itxua talde usurbildarrarekin batera, Itziarren semeak, Bizardunak, Dj Larra, Joxpa eta Dj Buru egongo dira jaietako oholtza gainean. Kontzertuon aurretik, larunbat gauetz, herri-afaria ospatuko da. Adi aipatu otordura joan nahi duenak, urtero moduan, alde aurretik eskuratu beharko du eta, txartela. Josune Aranburuk girotuko du auzoko plazan ospatuko den afaria.



JOSUNE ARANBURUK, IAZ BEZALA, HERRI AFARIAN HARTUKO DU PARTE.

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obra eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**LATAILLADE**     
**ITURGINTZA**  
GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK  
Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



# Abuztuaren amaieran izango dira festak, baina dagoeneko osatu dute jaien egitaraua

**A**txegaldeko Jai Batzordeak badu, oraingoan, azken unera arte gordean izango duen sekreturik. Hamarkadatik gorako etenaldiaren ostean, jaiak 2007. urtean berriz ospatzen hasi zirenetik zenbatzen hasita, bosgarren edizioa bete dute jada Atxegaldeko festek. Antolatzaileei urteurren borobil hau ez zaie ohar-kabeen pasa, eta azken hilabete hauetan, datozen urteotan auzoko jaietako ereserki lanak beteko dituen abesti bat sortzen ari dira.

Hori bai, letra, musika... Etxeko labeldun abestia izango da noski. Bigarrena jada, jaien itzulera omentzeko 2007an ere beste kanta bat ere prestatu baitzuten, orain artean festetan urtero entzun, abestu eta dantzatu ahal izan dena.

## ERESERKI BERRIA

“Jaiak hastearekin batera, emango dute kantu berria ezagutzera”

Abesti berria ezagutzeko hilabete eskas falta da, abuztuaren 26ra arte itxaron beharko da. Datorren hileko azken ostiralean, jaiak ofizialki hastearekin, estreinatuko da Atxegaldeko festak aldarri nagusi dituen kanta berria.



ABUZTUAREN 27A LARUNBATA JOLASEKIN HASIKO DA.

## Jai egitaraua egunez egun

### Abuztuak 26, ostirala

14:00 Jai Batzordearen bazkaria Mahaspildegian.  
17:30 Poteoa. Txaranga: Zumartxan.  
20:00 Txupinazoa eta txosna irekiera. Abesti berriaren estreinaldiarekin zuzenean. Ondoren, buruhandiak. Jarraian, luntx Mundiala. Gauean, kontzertuak: Itziarren semeak, Bizardunak, Dj Larra.

(15:30-16:00 apuntatzeko epea).  
17:00 Boleibol txapelketa, kaleka.  
18:30 Txokolatada.  
Ondoren, buruhandiak.  
21:00 Herri afaria (Josune, gaua alaitzen).  
Gauean, Mendeku Itxua eta Joxpa.

### Abuztuak 27, larunbata

11:00 Haurrentzako jolasak eta oparien banaketa.  
14:00 Herri bazkaria (norberak etxetik ekarria).  
16:00 Mus Txapelketa

### Abuztuak 28, igandea

12:00 Usurbilgo Dantzariak.  
13:30 Salda eta haragi egosi banaketa.  
17:00 Toka Txapelketa.  
18:00 Tortilla Patata Txapelketa.  
19:00 Dj Buru.  
22:30 Jaiak amaitzeko Traka eta Suzko Zezena.

*Antolatzailea: Atxegaldeko Jai Batzordea.*

 **Kima**   
MASAJE LEKUA  
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Okindegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**  
  
K/nagusia 14. © 943 362 725

# Hiltzen ez diren istorioei

**Santixabelei begira antolatu ohi den Bertsopaper Lehiaketak badu irabazlerik. Urtero moduan, uztailearen 2an jai giroan ospatu zen bertso saioaren ostean eman ziren jakitera sarituaren izen abizenak.**

**Aurten Jon Aizpuruak Esnaolak jantzi du txapela bigarrenaz, iazko edizioa ere berak irabazi baitzuen.**

**Hauxe da, Aizpuruak idatzi eta epaimahaiak saritu duen bertso sorta.** *Doimua: ETaren sutenetik.*

- 1 Atzo balitza bezala gordea lehen begirada herriko festak aitzaki joana nintzen plazara. Trikiti soinuaren lagun hango dantza ta bultzada bi begi urdinen ehiza hasi nuen sigi-saga. Esan zidaten zinela marinela alaba pausoz pauso joan nintzen gaintuz nire ikara inoiz sentitu ez nuen taupaden arrapalada.
- 2 Hirurogeita bi urte pasatuak honezkero eta ilusio horri eutsi diot egunero etxera laguntzekotan hasi genuena edo aitzakia bihurtu zen elkartzeko iluntzero zure ile beltzaranak ninduen karabinero, zure masail gorritxoek nire muxuak espero, beste iluntze baten zain loak hartzen nindun gero.
- 3 Ez ziren bi urte pasa ezkondu ginenerako gurera etorri zinen mesede baserrirako haseran ama, anaia, eta osaba Donato bi alaba, hiru seme ia konturatzerako. Gose urteak ondoren zenbat trantze, zenbat malko haziendak mantentzeko sufritu genuelako, behintzat bihotza ez nuen nere hankak bezain flako.
- 4 Gorriak ikusi arren hura ere gaintu zen ukuiluan genituen hiru txerri gizen-gizen barazkiak ere bide oparotik zihozten eta merkatuan salduz aurrerantza gindoazen. ondorenak ere hazi eta bideari zuzen gu ginen bezain zorteko guztiak izan zitezen ta berriz maitale gazte bezala sentitu nintzen.
- 5 Adinak ez du barkatzen eta zimurrak agertu, nork ez lituzke hartuko halako bi begi gertu! jubilatua ordurako nahiz ta bizkarrak okertu ez al zen sentimendu hau hamaika bider bidertu? zure irrien distira ez zen sekula atertu, zuretzat dena hain bizi nahiz besteontzat desertu, sekula ezingo dizut bizitakoa eskertu.
- 6 Orain zazpi hilabete aurkitu zuten koskorra malkotan ito nahi nuen halako berri lehorra amore ez eman arren benetan da gaitz gogorra nola liteke amets bat golpez horrela izorra? Saiakeraz saiakera maniobraz maniobra bularra kenduta ere alferrik izan da, horra zuk bizia galdu duzu, nik bizitzako altxorra.
- 7 Baldosa zuridun gelan xehetasun denei adi nik ere eutsi nahi nion zure azken arnasari pantailako marratxoak ez zuen segi saltari zure bihotzaren hotsak ez zuen segi kantari azken besarkada hura gure oroimenean kabi malkotan galdetu nizun oraindik ez daukat argi, nola esaten zaio agur hil ez den maitasunari?
- 8 Gaur eliza atarian masail denak malkotan blai zure arima gidatuz kolpeka hamaika kanpai kutxa begien jomugan ta guztiok hari jarrai aldarera iritsi naiz, nahiz uste ez nintzela gai. Bizitzak amaiera du nahiz ez dugun ulertu nahi biloba, seme-alaba... ez nago bakarrik lasai ni eurekin geratzen naiz istorio hau ere bai!

## Ate Irekien Eguna Aginagako ludotekan

Zenbait hitzordu deitu ditu Antxomolantxa Elkarteak. Abuztuaren 29, 30, 31 eta irailaren 1,2,3 eta 5ean ludoteka zabalik izango da, begirale batekin, goizez 10:00-13:30 artean. Irailaren 2an hain zuzen, Ate Irekien Eguna izango da, ludotekan bertan. Goizez, 10:00-14:00 artean hainbat jokoetan parte hartu ahal izango dute haurrek. 14:00etan bazkaria izango da soziedadean. Eta arratsalde, 16:30etik aurrera haurrentzat antzezlan bat ikusteko aukera izango da ludotekan. Antxomolantxatik, haur eta gurasoak iraileko lehen ostiralean burutuko diren ekitaldi hauetara gerturatu eta parte hartzeko gonbita luzatzen diete.

## Langile bat behar dute Lanbide Hastapen tailerretan

Atalluko tailerretan sukaldaritza eta ile-apainketa burutzen ari diren ikasleei arreta eskainiko dien komunikazio eta gizarte arlorako irakasle-hezitzaile bat kontratatu nahi du Usurbilgo Udalak. 10 hilabeteko kontratua eskaintzen da, lanaldi erdira. Interesatuak [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) web orrian izena eman ahal izango dute, uztailearen 28a bitartean. Informazio gehiago: [www.usurbil.net](http://www.usurbil.net).

**Iturgin ofiziala behar du Udalak**  
Urtebeterako bitarteko funtzionario izendapena. Pertsona aukeratzeko oposizio sistema erabiliko da eta probak irailaren hasieran egingo dira. Informazio gehiago: [www.usurbil.net](http://www.usurbil.net)

## Iraila hasieran, bi diaporama emanaldi

Bi diaporama emanaldi antolatu ditu Iñaki Agirresarobek, "Tola"k, irailaren 6 eta 7rako. Bi saioak Sutegin eskainiko dira, 19:30ean hasita. Lehenengo emanaldiak, "Ilunbistan" izena du eta aurreratu duenez, "ilunabarretan eta egunsentietan ateratako argazkiez osaturiko bilduma da". Egunak eskaintzen dituen beste aukera koloretsuak ere agertzen dira bertan. 25 minutuko iraupena du emanaldiak.

Bigarrena, joan den ekainean proiektatu zuena da, "Udaberriko liliak" izenekoa. Irailaren 7an, udaberriaren zehar Euskal Herriko hainbat txokok eskaintzen duten paisaiaz osaturiko bilduma da. 30 minutu irauten du honek.



## Agenda!

### Uztailak 23/31

#### - Zubietako jaiak

(xehetasun gehiago, 12. orrialdean).

### Abuztuak 7 igandea

#### - Organo kontzertua

20:00etan Salbatore parrokiari.

### Abuztuak 3/7

#### - San Estebango jaiak

(xehetasun gehiago 15. orrialdean).

## Goardiako farmaziak

### Uztailak 21, osteguna

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

### Uztailak 22, ostirala

Gil, Nagusia 24 Lasarte

### Uztailak 23 larunbata

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

### Uztailak 24, igandea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

### Uztailak 25, astelehena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

### Uztailak 26, asteartea

Gil, Nagusia 24 Lasarte

### Uztailak 27, asteazkena

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

### Uztailak 28, osteguna

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

### Uztailak 29, ostirala

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

### Uztailak 30 larunbata

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

### Uztailak 31, igandea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani  
Telefono zenbakia: 943 336 077.

[www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean 2011ko egutegia

## Santixabeletako bideo eta argazkien erakustaldia, irailaren 2an

**U**ztaila hasieran ospatu ziren Santixabeletako ekitaldi eta jaietako une desberdinak berriz gogoratzeko aukera izango da, askorentzat udako oporraldia amaitua edo bukatzeaz izango denean. Irailaren 2an gaueko 22:00etan, jaietan Usurbilgo Udalak egindako argazki eta bideo bilduma ikusteko ekitaldia antolatu dute frontoian.

Santixabelen inguruan Jai Batzordeak egiten duen balorazioa baikorra da. Harrera ona izan duten festetako alderdien artean, oraingoan lekuz eta orduz aldatu duten hasiera ekitaldia dago. Baita kokagune berri zuen maskota, edota txosnen eremuan antolatu diren ekitaldiak ere; tartean, lehen aldiz ospatu diren gazteen arteko olinpiadak. Hor daude bizi berriak dituzten eta kalejiran ibili diren erraldoiak, jendetza bildu zuen bertso saioa... Balantzaren beste aldean datorren urterako aldaketak txertatzeko proposamenak daude; tartean, iaz egin zen mural erraldoiaren esperientzia berreskuratzeko legoke, baita jaietarako zapi bat ateratzea ere.

### Alkoholemia frogak

Alkoholaren kontsumo arduratsu baten alde, informazioa eta sentsibilizazioa bul-tzatzen dute Askagintza elkartetik. Santixabeletan, uztailaren 1ean gauerdian hasi eta hiru bat orduz, postua jarri zuten Dema plaza eta Askatasuna plaza artean, "Gozatu ez tronpatu!" kanpainaren baitan. Nahi zuenak gerturatu eta alkoholemia frogak ezin zezakeen. Helduei eta adingabekoei zuzendua zegoen gonbita, eta guztira 90 lagunek parte hartu zuten ekimenean; 18 urtetik beherako 41 herritarrek, eta beste 49 helduek. Gehienak gizonak, %57,8, eta %40,2 emakumez-



ARTZABALEN, BALANTZEA EGITEN.

koak ziren.

Emaizak jasota, Askagintzak Usurbilgo Udalarari helarazi dion txostenaren arabera, adin tarteka, proba gehien egin zituztenak 15 urtekoak izan ziren (17 proba) eta 36-40 urte artekoak, 13 proba guztira.

### Erdi eta erdi

Emaizta parekatuak erregistratu ditu Askagintzak. 48 positibo eta 42 negatibo. Helduen artean, alkoholemia frogak egin zutenetik 25 lagunek (%51,03), tasa negatiboa eman zuten, gainerakoek positibo.

Gogora dezagun, tasa negatiboa hartutako airean litroko 0,24 mg arte da, hortik aurrera positiboa. 0,25 mgtik gora eman zutenen artean honakoak daude: 18 lagun 0,25-0,50 mg/l artean, beste sei hortik gora. Hurrenez hurren, positibo horiek gidabaimeneko 4 eta sei punturen galera suposatuko luke. Helduen artean, tasarik altuena, 0,74 mg/l-koa izan zen.

Alkohola kontsumitu eta gutxira egingo diren frogak dira eta Askagintzatik gaineratzen dutenez, "ez dugu igarri mozkorraldi nabarmenik". Oro har, positibo gehien eman zutenak, %60,5, gizonak izan ziren, %39,5 emakumeak, nahiz Askagintzatik ohartarazten dutenez, "aldartzen ari den joera, emakumeak gizonaren kontsumo ohiturak bereganatzen ari da".

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 · ASTEASU

© 943 69 68 52 · 620 800 186

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

USURBILGO ATARIA

## ETXEBIZITZA

- Apartamentu amueblatu bat salgai Santuenean, 150.000 eurotan. Prezio negoziagarria. 650 285 431
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudan pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekaintetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dut Usurbilgo kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gauetan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idioia 695733535.
- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komuna. Tlf: 670070562
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berritua eta amueblatua. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat dauka salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitsua eta bizitzentzako moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere bada. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegia ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 km-ra. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gautz).
- Muna Lurra kalean etxe bat alokatzen da. Eguzkitsua eta berritua. 637225620.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Ford Focus bat salgai, 2000. urtekoa. 126.000 km. Egoera onean. 617 772 036.
- Peugeot Partner salgai. Egoera onean, ohe eta guzti. Gaizteztat egokia. 667 830 484.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai.

- 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi.
- Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egingo al zinazake? Hala bada, pasa zaitez Udarrerri Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

## Lan-eskaintzak

- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idioia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendarri lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- LHko irakaslea udan klase partikularrak emateko prest. 658 706 443.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziduna eta erreferentziak eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan. Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzekeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.

- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakume interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bi hilabeteko bost txakur-kume gara etxe bila. Gurean ezin dute hainbeste animalia izan eta bestela txakurtegia eramango gaituzte. Mesedez, eraman gaitzazue. Deitu 635 714 030.
- Belarritako galdu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- 2 sofa indibidualak, izoki kolorekoak oparitzeko. Mari Karmen. Telf: 653 741 932
- Kalezar azotik xirridula bat desagertu da. 27 zazpi urte ditu, Peugeot marka, kolore zuria, emakumezko modeloa, palankazko kanbioekin koadro ondoan eta jarlekuan kokka bat dauka egin berria. Diru kompensazioa eskaintzen dut balore sentimentala handia daukalako neuretzat. Irene 675 71 72 67
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Ume kapota bat jaso zuen Udaltzaingoa Zubiaurrena 2an (Otar Goxo parean). Galdu duenak Udaletxean jaso dezake.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserriarako. 666539284
- Masajeak ematen diut: reflexologia, siatsua, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Bi haur dituen familia gara eta Asturias edo Cantabrian kanpin dagoen gurean mobilhome edo karabana alokatuko genuke abuzturako. 675 007 048 (Garbife).
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea korxean eramateko ziurtasun aukia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburategian, martxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzeko. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxetan, elkarre gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailu edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzatan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



**Zorionak Sergio eta Ane!** Sergiok abuztuaren 4an eta Anek 19an egingo dituzte urteak. Zorionak eta muxu

handi eta potoloak, ama, aita eta Adegoren partez.



**Zorionak Spiderman!**

Gure super heroiak 5 urte beteko ditu hilaren 28an. Zorionak eta muxu handi-handi

bat etxeko guztien partez.



**Zorionak Ibai!**

Abuztuaren 7an, 9 urte egingo dituzu. Muxu handi bat eta ondo pasa, zure izeba ta osabaren partez.



**Zorionak Olatz!**

Uztailaren 30an 2 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez!

## HILDAKOAK

**Pedro Mari Lizarraga Zuriarrain**

75 urterekin hil zen uztailaren 14ean, Usurbilen



**Zorionak Irati!** Urte askoan gure etxeko *erregiñari*. Bere lehen urtebetetze eguna abuztuaren 5ean du.

Aurrez, muxu handi bat, guraso, aiton-amon eta izeba-osabaren partez.





erredakzioa@noaia.com  
www.noaia.com

**Oporretara goaz, datorren aldizkaria irailaren 9an**

www.iruindagardotegia.com  
www.astiazaransagardoak.com

**iru**  
in  
sagardotegia

*Ondo pasa Santioak!*

Iruin Sagardotegia eta Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g, Zubieta  
943 361 229

**SANATORIO** de **USURBIL**

USURBILgo SENDATEGIA

San Esteban, 48. Tel: 943 36 11 24 Fax: 943 36 28 98  
info@sanatoriodeusurbil.com www.sanatoriodeusurbil.com

*Ondo igaro festak!*





Ondo pasa Santiotan!!

